koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua

Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA**

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE
ETA KULTURA
ZERBITZUAK

## HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 6. modulua: **Garapen Sozioafektiboa**

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA**

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

# HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 6 modulua: **Garapen Sozioafektiboa**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http//www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2009ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 50 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Egilea: | Ana Arispe Abraldes |
| Koordinazioa: | Víctor Marijuán Marijuán<br>KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA<br>INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL<br>www.kei-ivac.com |
| Diseinua eta diagramazioa: | TRESDETRES |
| Inprimatzea: | mccgraphics |
| L.G.: | VI 394/2009 |



Iraupena: 165 ordu
UDen kopurua: 5

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzera eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

# AURKIBIDEA


UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA — 04. or.

0 — 0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena. — 05. or.

1 — 1. unitate didaktikoa: Garapen afektiboko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta ebaluatzea. — 08. or.

2 — 2. unitate didaktikoa: Garapen sozialeko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta eta ebaluatzea. — 19. or.

3 — 3. unitate didaktikoa: Balioak garatzeko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta ebaluatzea. — 31. or.

4 — 4. unitate didaktikoa: Garapen sexualeko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta ebaluatzea. — 42. or.

5 — 5. unitate didaktikoa: Portaerako asaldura eta gatazka ohikoenetan estrategiak programatu, abiarazi eta ebaluatzea. — 53. or.

## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

| EDUKI MULTZOAK | | | | | | | UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK | IRAUPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M 1 | M 2 | M 3 | M 4 | M 5 | M 5 | M 7 | | |
| | | | | | | | UD 0: Moduluaren aurkezpena. | 1 h. |
| x | | | | | x | x | UD 1: Garapen afektiboko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta ebaluatzea. | 32 h. |
| | x | | | | x | x | UD 2: Garapen sozialeko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta ebaluatzea. | 42 h. |
| | | x | | | x | x | UD 3: Balioak garatzeko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta ebaluatzea. | 32 h. |
| | | | x | | x | x | UD 4: Garapen sexualeko esku-hartzea planifikatu, abiarazi eta ebaluatzea. | 26 h. |
| | | | | x | x | x | UD 5: Portaerako asaldura eta gatazka ohikoenetan estrategiak programatu, abiarazi eta ebaluatzea. | 32 h. |
| | | | | | | | TOTAL | 165 ordu |

*1. multzoa: Garapen afektiboko esku-hartzea planifikatzea.*
*2. multzoa: Garapen sozialeko esku-hartzea planifikatzea.*
*3. multzoa: Balioak garatzeko esku-hartzea planifikatzea.*
*4. multzoa: Garapen sexualeko esku-hartzea planifikatzea.*
*5. multzoa: Portaerako asaldura eta gatazka ohikoenetan estrategiak programatzea.*
*6. multzoa: Esparru sozioafektiboan esku-hartzeak abiaraztea.*
*7. multzoa: Esparru sozioafektiboko esku-hartzea ebaluatzea.*

<table>
<tr><td colspan="2">0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA</td><td colspan="7">Iraupena: 1 ordu</td></tr>
<tr><td colspan="9">Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.<br>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.<br>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.<br>4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.<br>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</td></tr>
<tr><td colspan="2" rowspan="2">EDUKIAK</td><td colspan="7">Multzoak</td></tr>
<tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td><td>7</td></tr>
<tr><td>PROZEDURAZKOAK</td><td>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.<br>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>KONTZEPTUZKOAK</td><td>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.<br>• Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.<br>• Moduluaren helburuak.<br>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>JARRERAZKOAK</td><td>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.<br>• Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena. | 1 | 10 m. | X | X | Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da. | Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango. | Ez da bitarteko berezirik behar. |
| J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena. | 2-4 | 10 m. | X | X | Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du. | Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste. | Arbela.<br>Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.<br>Kronogramak<br>Informazioa duten fotokopiak. |
| J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena. | 2-3 | 10 m. | X | X | Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuez lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.<br><br>Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da. | Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna. | Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar. |
| J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa. | 5 | 30 m. | X | X | Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez. | Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari. | Galdera sortak. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.<br>• J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.<br>• Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. |

| 1. unitate didaktikoa: GARAPEN AFEKTIBOKO ESKU HARTZEA PLANIFIKATU, ABIARAZI ETA EBALUATZEA | Iraupena: 32 ordu |
|---|---|

*IE 1: Haurren garapen afektiboari laguntzeko esku-hartzeak planifikatzen ditu. Horretarako, azalpen-teoriak eta esku-hartzearen xede diren banakoen eta taldearen ezaugarriak aztertzen ditu.*
*IE 6: Esparru sozioafektiboan esku hartzeko programak eta jarduerak abiarazten ditu, eta horiek hezitzailearen estrategia metodologikoekin eta eginkizunarekin lotzen ditu.*
*IE 7: Esparru sozioafektiboan egindako esku-hartzea ebaluatzen du, eta erabilitako aldagaien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Haurren afektibitatearen, eta horren eboluzioaren eta asaldura ohikoenen ezaugarri nagusiak deskribatzea.
2. Haurraren garapen osoan atxikimenduak duen garrantzia baloratzea. Haurren garapen afektiboari buruzko ikusmolde teoriko desberdinak identifikatzea.
3. Esku-hartzea diseinatzeko aldagai garrantzitsuak identifikatzea.
4. Haurren eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak finkatzea.
5. Helburuekin eta haurren ezaugarriekin koherenteak diren jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatzea.
6. Egokitzealdia antolatzeko estrategia egokiak deskribatzea.
7. Nortasun pertsonala eta norberaren irudi positiboa garatzen laguntzen duten jarduerak proposatzea.
8. Nortasun pertsonal egokia eraikitzeko helduek eta gurasoek duten garrantzia baloratzea.
9. Subjektuaren garapen osoan afektibitateak duen garrantzia baloratzea.
11. Esparru sozioafektiboko ebaluazio-tresna eta -adierazle egokienak identifikatu, diseinatu eta aplikatzea.
12. Hasierako ebaluazioaren garrantzia justifikatzea.
13. Ebaluazio-prozesutik ateratako datuak objektibotasun handienarekin erregistratzea eta ebaluazio-prozesuetatik bildutako informazioa behar bezala interpretatzea.
14. Beste profesional batzuen parte-hartzea eskatzen duten egoerak eta bete beharreko jardunbideak identifikatzea.
15. Eman beharreko informazioarekin eta haren hartzailearekin koherenteak izango diren txostenak egitea, ebaluazioaren garrantzia baloratuta eta esku-hartze desegoki baten litezkeen arrazoiak identifikatuta.
16. Hezitzaileak izan beharreko jarrerak eta bete beharreko eginkizuna deskribatzea, harreman-estilo bat identifikatzea, gizarte-trebetasunak erabiltzea, adeitasun, konfiantza eta errespetuzko giroa sortzea, eta genero-berdintasunaren printzipioa kontuan hartzea, haurren garapen sozioafektiboa errazteko.
17. Emozioak adierazi eta identifika daitezen bultzatzea, haurrek emozioak adierazi eta identifikatzean bakoitzaren erritmoak errespetatzea eta askotariko rolak betetzen lagunduko duten estrategiak aplikatzea, rolak modu sexistan esleituko ez diren moduan.
18. Espazioak antolatzea, balioak eskuratzea eta esparru sozioafektiboarekin lotutako gertaeren aurrean behar bezala jokatzea, horrela, haurren behar sozioafektiboei erantzuteko.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| PROZEDURAZKOAK | • Garapen sozioafektiboaren koadro bat egitea. | X | | | | | | |
| | • Garapen afektibo egokia erraztuko duten egoerak prestatzea. | X | | | | | | |
| | • Emozio nabarmeneko egoerak identifikatzea. | X | | | | | | |
| | • Emozioak adierazten lagunduko duten jarduerak diseinatzea. | X | | | | | | |
| | • Haurraren garapen afektiboa behatu eta ebaluatu ahal izateko tresnak diseinatzea. | X | | | | | | |
| | • Afektibitatearekin lotutako gatazkak lantzeko ipuinak erabiltzea. | X | | | | | | |
| | • Haurraren garapen afektiboa erraztuko duten jarduerak prestatzea. | X | | | | | | |
| | • Garapen afektiboarekin lotutako arazoak identifikatzea. | X | | | | | | |
| | • Errespetu eta tolerantziazko giroa erraztuko duten jarduerak prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Egoera ohikoenak aztertzea. | | | | | | X | |
| | • Errespetuzko egoerak erraztuko dituzten esku hartzeko jarraibideak prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Gatazkei aurre hartzeko behaketa-jarraibideak diseinatzea. | | | | | | X | |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzeko behaketa-jarraibideak prestatzea. | | | | | | | X |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzeko irizpideak diseinatzea. | | | | | | | X |
| | • Ebaluazio-txostenak prestatzea. | | | | | | | X |
| | • Haurren garapenei buruzko datuak biltzeko tresnak prestatzea. | | | | | | | X |
| KONTZEPTUZKOAK | • Garapen afektiboa azaltzen duten teoriak. | X | | | | | | |
| | • Haurren afektibitatearen ezaugarriak. | X | | | | | | |
| | • Haurren afektibitatearen eboluzio-faseak. | X | | | | | | |
| | • Atxikimendua: etapak atxikimenduaren garapenean, haren sorreran eta eboluzioan eragina duten faktoreak. | X | | | | | | |
| | • Eskolaren eginkizuna haurraren garapen afektiboan. | X | | | | | | |
| | • Egokitzealdia garapen afektiboan. | X | | | | | | |
| | • Gatazka ohikoenak garapen afektiboan. | X | | | | | | |
| | • Garapen afektibo egokia erraztuko duten estrategiak. | X | | | | | | |
| | • Emozioak haurtzaroan. | X | | | | | | |
| | • Emozioak bideratzea. Pentazitatea. | X | | | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | • Negarra: adierazpen emozionala. | X | | | | | | |
| | • Beldurra, lotsa eta harrotasuna. | X | | | | | | |
| | • Gogamenari buruzko teoria. | X | | | | | | |
| | • Garapen afektiboa aniztasunean. | X | | | | | | |
| | • Hezitzailearen eginkizuna garapen afektiboan. | X | | | | | | |
| | • Hezitzailearen eta haurraren arteko harremana. | | | | | | X | |
| | • Haurraren gizarte-trebetasunak. | | | | | | X | |
| | • Portaera imitatzeko ereduak. | | | | | | X | |
| | • Aniztasunarekiko arreta. | | | | | | X | |
| | • Gatazkak ebaztea. | | | | | | X | |
| | • Hezitzailearen eginkizuna gatazketan. | | | | | | X | |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzea. | | | | | | | X |
| | • Garapen sozioafektiboan kontuan hartu beharreko aldagaiak. | | | | | | | X |
| | • Datuak biltzeko tresnak. | | | | | | | X |
| | • Ebaluazio-txostenak. | | | | | | | X |
| | • Garapen sozioafektiboaren eragina haurraren garapen osoan. | | | | | | | X |
| JARRERAZKOAK | • Haurren afektibitatearekin lotutako jardueren garrantzia baloratzea. | X | | | | | | |
| | • Entzuteko jarrera. | X | | | | | | |
| | • Emozioak bideratzeko jarrera arduratsua. | X | | | | | | |
| | • Jarrera malgua aniztasunaren aurrean. | X | | | | | | |
| | • Arazo afektiboak antzemateko behaketak duen garrantzia baloratzea. | X | | | | | | |
| | • Konponbideak bilatzeko ekimena. | X | | | | | | |
| | • Haurraren garapen afektiboan familiaren eta eskolaren arteko lankidetza baloratzea. | X | | | | | | |
| | • Behatzeko jarrerak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | X | |
| | • Jarraitu beharreko eredu gisa hezitzailearen eginkizunak duen garrantziari buruzko gogoetazko jarrera. | | | | | | X | |
| | • Adiskidetzeko eta laguntzeko jarrera haurren garapen sozioafektiboan. | | | | | | X | |
| | • Haurraren garapen sozioafektiboa erraztuko duen jarrera positiboa. | | | | | | | X |
| | • Haurraren garapen osoan garapen sozioafektiboak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | | X |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | | 0,5 h. | X | | Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta.<br>Arbela.<br>Klarionak.<br>Testuliburua. |
| J1 Talde-jarduera: oinarrizko kontzeptuei buruzko gogoeta (zer den haztea eta heltzea, eta norberaren haurtzarora jotzea).<br><br>J1.1 Ikasleen praktika autonomoa, J1 jardueraren inguruan. | 1<br><br>1 | <br><br>15` | X | X<br><br>X | Irakasleak taldeko gogoeta batekin hasiko du saioa: haztea, heltzea... zer den. Horretarako, norberaren haurtzaroko oroitzapenetara jo daiteke.<br><br>Ondoren, ikasle bakoitzak kontzeptu horiek garatzearekin eta ikastearekin lotuko ditu. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko, aurretiazko ezagupenak antzemateko, aurretiazko kontzeptuak ebaluatzeko eta, horrela, ikaskuntza esanguratsuak lortzeko. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J2 Garapen sozioafektiboari (teoriak) eta horrek biltzen dituen alderdiei buruzko azalpena. | 1, 2 | 1 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du garapen sozioafektiboari eta horrek biltzen dituen alderdiei buruz. | Ikasleek garapen sozioafektiboari eta horrek biltzen dituen alderdiei buruzko arazoak ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Testuliburua. |
| J3-E1 Kasu praktikoak ebaztea. | 2, 4 | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak zenbait egoera ebatzi beharko ditu. Egoera horietan, afektibitatearen eboluzioa bizitza osoan zehar dela azpimarratuko da (alargun | Ikasleek garapen sozioafektiboari eta horrek biltzen dituen alderdiei buruzko arazoak ezagutu ditzaten. | Hezitzaileak diseinatutako suposizio praktikoak.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J3.1. Taldeko eztabaida. | | | X | X | gelditzen den emakumea edo gizona, haur baten gurasoak dibortziatzen direnean, egoitza batean sartzen den zaharra...).<br>Irakasleek hezitzaileak moderatutako talde handian eztabaidatuko dute urteak igaro ahala afektibitateak duen eboluzioaren inguruan. | | |
| J4-E2 Ikasleen praktika autonomoa: garapen sozioafektiboan familiak duen garrantziari buruzko gogoeta. | 3, 4, 9 | 15` | | X | Ikasle bakoitzak afektibitatearen garapenean familiak lehen eragile gisa duen garrantziari, haren oinarrizko eginkizunei eta lehen hezkuntza-oinarriei buruzko gogoeta egingo du, eta familiaren definizio bat proposatuko du. | Ikasleengan motibazioa eta interesa pizteko familiak duen garrantziaren eta pertsonen eboluzio egokirako nahi duten familia/gizarte motaren inguruan. | Testuliburua.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J5-E3 Ikasleen taldeko praktika: horma-irudi bat egitea. | 3, 5 | 1 h. | | X | Ikasleek, taldetan, egunkari eta aldizkarietako berriak bildu beharko dituzte kontzeptu hauekin lotuta: hazkuntza, garapena, heltzea, ikaskuntza, familia, atxikimendua, gizarte-bazterketa, marjinazioa, integrazioa, minusbaliotasuna, familiaren inplikazioa hezkuntzan, haur-hezitzailearen inplikazioa... Ondoren, berri horiekin horma-irudi bat egingo dute. Horma-irudia egiteko, gutxienez bederatzi kontzeptu aukeratuko dituzte. | Ikasleek garapen sozioafektiboari eta horrek biltzen dituen alderdiei buruzko arazoak ezagutu ditzaten, eta ikasgelan kontzeptu oinarrizkoenen ikuspegi bat emateko. | Egunkariak.<br>Aldizkariak.<br>Kartoi meheak.<br>Berriak.<br>Irudiak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola.<br>Guraizeak. |
| J6-E4 Ikasleen taldeko praktika: familia motak islatuko dituen lan bat egitea. | 3 | 1 h. | | X | Ikasleek, taldetan, horma-irudi bat egingo dute. Bertan, duela 30 urte baino gehiagotik hona eta gaur egun dauden familia motak edo familia-ereduak islatuko dira. | Egungo familia moten inguruko gogoeta bultzatzeko. Eta, gizarte honetako kide gisa, eurentzat eta etorkizunean izango dituzten seme-alabentzat nahiko luketen familia motari buruz ere gogoeta egiteko. | Kartoi meheak.<br>Berriak.<br>Irudiak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola.<br>Guraizeak. |
| J7 "Ça commence aujourd'hui" filma ematea. | 3, 4 | 1,5 h. | X | X | Ikasgelan, "Ça commence aujourd'hui" filma ikusiko dugu. | Ikasleek gai hauen inguruan gogoeta egin dezaten: giro marjinalak, familia- | Telebista.<br>DVD erreproduzitzailea. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J7.1-E5 Ikasleen praktika autonomoa: I7 jarduerari buruzko azterketa kritikoa. | | | X | | Emanaldia amaitu ondoren, ikasleek filmaren azterketa kritikoa egingo dute eta, azterketa horretan, ateratako ondorioak azalduko dituzte.<br><br>Azalpena talde handian, ondorio orokor batzuk ateratzeko. | harremanak, hezitzaileen arteko harremanak, eskolako gizarte-zerbitzuak, familia-inplikazioak, inguruneko baliabideen garrantzia, eskola batean lan egiteko norberaren bokazioa baloratzea, eskolako festa integratzaileen eta talde-jardueren garrantzia atxikimendu-sentimendua emateko, poza, elkartasuna... | CDa.<br><br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J8 Honako gaiei buruzko azalpena:<br><br>-Haurren afektibitatearen ezaugarriak eta eboluzioa.<br>-Emozioak eta sentimenduak, eta oinarrizko emozioak lantzearen garrantzia. | 2, 8, 9 | 1 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du emozioei eta sentimenduei, eta oinarrizko emozioak lantzearen garrantziari buruz. | Ikasleek emozioei eta sentimenduei, eta oinarrizko emozioak lantzearen garrantziari buruzko arazoak ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J9-E6 Ikasleen praktika autonomoa: adimen emozionalari buruzko informazioa bilatzea.<br><br>J9.1-E7 Ikasleen taldeko praktika: I9 jarduerarekin lotutako baliabideak biltzea. | 8, 9, 17, 18 | 1,5 h. | | X<br><br><br><br>X | Ikasle bakoitzak hainbat iturritan informazioa bilatu beharko du adimen emozionalaren inguruan.<br><br>Ikasleek, taldetan, haur-eskolan erabiltzen diren baliabideak bildu beharko dituzte, Haur Hezkuntzan adimen emozionala lantzeko. | Ikasleak jabetu daitezen abstraktua bezain sendoa izango den adimen emozionala izatearen garrantziaz. | Testuliburua.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak. |
| J10-E8 Ikasleen taldeko praktika: Adimen emozionalaren hasierako ebaluazioa lantzea.<br><br>J10.1-E9 Emozioak lantzeko jarduerak diseinatzea.<br><br>J10.2-E10 Eman beharreko informazioarekiko txosten koherenteak egitea. | 12, 6, 10, 15, 17, 18 | 2,5 h. | | X | Ikasleek, taldetan, emozio bat nola adierazi eta, era berean, hura erregulatzen eta/edo kontrolatzeko nola ikasi eskatuko duten jarduerak diseinatu beharko ditu. Talde bakoitzak diseinatu beharrekoa:<br>• 1 ipuin.<br>• 1 irteera.<br>• 1 jolas.<br>• 1 festa. | Emozioak lantzeko jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatzen ikasteko.<br><br>Emozioak eta sentimenduak adierazteko jardueren diseinuan sormenezko proposamenak egiten ikasteko. | Testuliburua.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J10.3-E11 Taldeko azalpena I10 jarduerari buruz. | | | | | Ondoren, talde bakoitzak mota bakoitzeko bana azaldu eta egin beharko du. | | |
| J11 Garapen sozioafektiboa azaltzen duten teoriei buruzko azalpena. | 1 | 1 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du garapen sozioafektiboa azaltzen duten teoriei buruz. | Ikasleek garapen sozioafektiboa azaltzen duten teoriei buruzko arazoak ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J12 Ikasleen praktika autonomoa: biografia bat egitea, haurtzaroaren beraren inguruan gogoeta egiteko. | 1, 2 | 0,5 h. | | X | Ikasle bakoitzak berorren haurtzaroari eta lotura afektiboei buruzko gogoeta egin beharko du. Horretarako, bibliografia labur batean, bere haurtzaroaren eta izandako loturen inguruko oroitzapenak gogora ekarriko ditu. | Nork bere burua ezagutzeari, norberaren haurtzaroari eta lehen lotura afektiboei buruz gogoeta egiteko. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Argazkiak. |
| J13 Atxikimenduari eta atxikimendu segurua sustatzeari buruzko azalpena.<br><br>J13.1 Ikasleen taldeko praktika: bestelako atxikimendu motak ondorioztatzea. | 3, 10 | 1 h. | X | <br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du atxikimenduari eta atxikimendu segurua sustatzeari buruz.<br><br>Ondoren, ikasleek, taldetan, bestelako atxikimendu motak zein diren eta familia-multzo horiek zein haur motak sortzen duten ondorioztatu beharko dute. | Ikasleei atxikimenduari eta atxikimendu segurua sustatzeari buruzko arazoak ezagutzera emateko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J14-E12 Ikerketa-lana, atxikimendua sortzean eragina duten faktoreei buruzkoa. | 3, 4 | 15` | | X | Ikasleek, taldetan banatuta, hainbat dokumentutan/bibliografiatan ikertu beharko du zein faktorek duten eragina atxikimendu mota jakin bat sortzean. | Gurasoen sentikortasunak duen garrantzia eta arazo handirik sortzen ez duen seme-alaba bat izatearen garrantzia baloratzeko. | Testuliburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak. |
| J15-E13 Ikasleen praktika autonomoa: jardunbide egokiei buruzko eskuliburu bat egitea, haurren eboluzio-ezaugarriak kontuan izanda. | 5, 6 | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak jardunbide egokiei buruzko eskuliburu bat egin beharko du. Bertan, atxikimendu segurua izango duten haurrak prestatzeko aholkuak eta iradokizunak jasoko ditu. | Ikasleei tresna jakin batzuk emateko haur-eskolako ikasgelaren aurrean jarri behar dutenerako. | Testuliburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Kanoia. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | Inprimagailua. |
| J16 Nortasun pertsonalari eta autoezagutzari buruzko azalpena. | 8 | 1 h. | X | | Ikasleak klase magistrala emango du nortasun profesionalaren, autoezagutzaren, autoestimazioaren eta enpatiaren inguruan. | Ikasleei nortasun pertsonalaren eta autoezagutzaren inguruko arazoak ezagutzera emateko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J17 "Little Miss Sunshine" filma ematea.<br><br>J17.1-E14 Ikasleen praktika autonomoa: J17 jarduerari buruzko azterketa kritikoa. | 2, 3, 8 | 1,5 h. | | X | Ikasgelan, "Little Miss Sunshine" filma ikusiko dugu.<br><br>Emanaldia amaitu ondoren, ikasleek filmaren azterketa kritikoa egingo dute eta, azterketa horretan, ateratako ondorioak azalduko dituzte. | Protagonista den familiaren hezkuntza-ereduari buruz gogoeta egiteko eta horren hautabideak proposatzeko.<br>Autoirudi positiboarekin eta familiako kide bakoitzaren autoezagutzarekin lotutako kontzeptuak baloratzeko. | Telebista.<br>DVD erreproduzitzailea.<br>CDa.<br><br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J18 Aniztasunaren baitako garapen afektiboari buruzko azalpena. Profesionalak eta baliabideak. | 2 | 1 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du atxikimenduari eta atxikimendu segurua sustatzeari buruz. | Ikasleei atxikimenduari eta, aniztasuna gorabehera, atxikimendu segurua sustatzeari buruzko arazoak ezagutzera emateko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J19 Ikasleen praktika autonomoa: eskolan norberak izandako marjinazio-bizipenen inguruko gogoeta. | 2, 17 | 15` | | X | Ikasle bakoitzak gogoeta egin beharko du eskolan norberak izandako marjinazio-bizipenen inguruan, besteen artean ez nabarmentzearen edota ospetsua ere izatearen bizipenarekin kontrajarrita. | Desberdina zarenean edo besteek desberdintzat ikusten zaituztenean zer sentitzen den hauteman eta aztertzeko. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J20-E15 Ikasleen praktika autonomoa: haur minusbaliatuei eta horien familiei zuzendutako integrazio-estrategiak prestatzea. | 2, 4, 5 | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak zenbait integrazio-estrategia prestatu beharko ditu Down-en sindromea, hiperaktibitatea, minusbaliotasun sentsoriala... duten haurrentzat. | Ikasleei tresna egokiak emateko haur-eskolari benetan aurre egin behar diotenerako. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J21 Eskolako kide guztientzako egokitzealdiari buruzko azalpena. | 7 | 1 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du haur-eskolako egokitzealdiari buruz. | Haur-eskola hasi aurretik, eskolan baliabide guztiak ondo planifikatzeak eta familiari emandako prestakuntzak duen garrantzia ulertzeko. | Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J22-E16 Ikasleen praktika autonomoa: familiarentzako informazio-dokumentu bat prestatzea.<br><br>J22.1-E17 Komunikazio-sistemak prestatzea (erregistro-orriak, banakako txostenak...). | 7, 15 | 1,5 h. | | X | Ikasle bakoitzak informazio-txosten bana prestatu beharko du gurasoei emateko. Txostenak aurreko informazioa jaso beharko du aholku praktikoen moduan.<br>Ustezko ikastetxe bat sortu beharko du, dagokion logoarekin, zuzendaritzarekin... | Egokitze-prozesuan familia jakinaren gainean egon dadin, erregistro-orri eta txosten egokiek duten garrantzia ulertzeko. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J23-E18 Ikasleen taldeko praktika:<br><br>-2 h.ezkuntza-jardunaldi programatzea.<br><br>-Beste eskola batzuetan egindako esperientziak bilatzea, eta 25 urtetik gora lanean daramaten hezitzaileekin eta hiru urte inguru daramatenekin hitza egitea, ideien aberastasuna ekar dezaten. | 7, 12, 11, 16, 18 | 2 h. | | X | Ikasleek, taldetan, bi hezkuntza-jardunaldi egin beharko dituzte, bata egokitzealdiaren barruan eta bestea aldi hori bukatu ondoren. Alderdi hauek adieraziko dituzte:<br>• Helburua, haurraren eboluzio ezaugarrien arabera.<br>• Jarduera.<br>• Baliabideak.<br>• Estrategiak. | Ikasleen baitan ikasten ikasteko eta informazioa kudeatzeko konpetentzia bultzatzearren. Era berean, taldean lan egiteko eta pertsonen artean komunikatzeko konpetentziak bultzatzearren. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J24-E19 Ikasleen taldeko praktika: familiarekin egin beharreko bilera bat planifikatzea. | 8, 9, 10, 18 | 1 h. | | X | Ikasleek, taldeka, familiarekin egin beharreko bilera bat planifikatu beharko dute. Hitzaldi bat eman beharko diote lehen landutako liburuetatik ateratako aholku praktikoei buruz. Horretarako, zenbait liburu irakurri beharko dituzte, seme-alabak emozionalki hezteko metodologia egokiaren inguruan, eta aholku praktikoak atera ere, bai hezitzaileentzat, bai eta familiarentzat ere. | Haurren bizitza emozionalaren inguruko ideia nagusiak ateratzeko plangintza egitearren. Horrela, ikasleen baitan ikasten ikasteko konpetentzia bultzatuko dugu. Gainera, haurren artean sor daitezkeen gatazken aurrean erabakiak hartzen eta horiek kudeatzen jakiteko konpetentzia ere bultzatuko dugu. | Zenbait liburu.<br>Telebista.<br>DVD erreproduzitzailea.<br>CDa.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J25 “Matilda” filma ematea.<br><br>J25.1-E20 Ikasleen praktika autonomoa: | 2, 3, 6, 17, 14 | 1,5 h. | | <br><br>X | Ikasgelan, "Matilda" filma ikusiko dugu.<br><br>Emanaldia amaitu ondoren, ikasleek | Familia-ereduaren eta sortutako atxikimenduaren inguruan gogoeta egitea. Marjinatuta egon arren ahalmen handiak | Telebista.<br>DVD erreproduzitzailea.<br>CDa. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J25 jarduerari buruzko azterketa kritikoa. | | | | | filmaren azterketa kritikoa egingo dute eta, azterketa horretan, ateratako ondorioak azalduko dituzte. | dituzten haurren ezaugarriei buruz gogoeta egitea. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J26 Pentazitatearen teorian aitzindari den hezitzaile baten hitzaldia. | 8, 10, 11, 13, 16, 17, 18 | 1 h. | X | | Txostengileak pentazitatearen printzipioak xehetasunez azalduko ditu, eta teoria aplikatzeko beharrezkoak diren materialak nola erabili eta sortu ere azalduko du. | Adimen emozionalak dituen onuren inguruko ondorioak ateratzeko.<br>Aurkeztutako materialak eta eskolako eguneroko bizitzan izan dezaketen aplikazioa ikasteko. | Telebista.<br>DVD erreproduzitzailea.<br>CDa.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J27-E21 Talde-lana: ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren datuak jasotzea.<br><br>J27.1-E22 Talde-lana: ebaluazio-tresnak aplikatzea.<br><br>J2.2-E23 Talde-lana: jasotako informazioa egoki interpretatzea. | 13, 14, 15, 18 | 2 h. | | X<br><br>X<br><br>X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta haur-talde bat behatu beharko dute. Emozioak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna ebaluatu ahal izateko beharrezkoak diren datuak jasoko dituzte.<br>Horretarako, emozioak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna ebaluatzeko tresnak erabili beharko dituzte.<br><br>Ondoren, irakasleari txosten bat emango diote, eta jasotako informazioa eta lortutako ondorioak adieraziko dituzte bertan. Irakasleak txostena zuzendu eta baloratuko du. | Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzeko, emozioak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna eskuratzearekin lotuta.<br>Erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifikatzeko.<br>Bildutako informazioa ondo interpretatzeko.<br>Haur-eskolan emozioak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna ez garatzearen ondorioz izan daitezkeen gabeziak identifikatzeko. | Testuliburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J28-E24 Ikasleen praktika autonomoa: 1. haurtzaroan garapen soziala errazten duten esku-hartzeak programatzeko material teorikoari buruzko txosten bat egitea. | Guztiak | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak txosten batean jasoko ditu unitate didaktikoan landutako eduki teoriko garrantzitsuenak. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Testuliburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Kanoia.<br>Inprimagailua. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E25 Berariazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h. | | X | Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka. | Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balioko du. | Azterketa. |

OHARRAK

- Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.
- Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu.

| 2. unitate didaktikoa: GARAPEN SOZIALEKO ESKU HARTZEA PLANIFIKATU, ABIARAZI ETA EBALUATZEA | Iraupena: 42 ordu |
|---|---|

*IE 1: Haurren garapen sozialari laguntzeko esku-hartzeak planifikatzen ditu. Horretarako, esku-hartzeak eragina duten faktoreekin, eta haien xede diren banakoen eta taldearen ezaugarriekin lotzen ditu.*
*IE 6: Esparru sozioafektiboan esku hartzeko programak eta jarduerak abiarazten ditu, eta horiek hezitzailearen estrategia metodologikoekin eta eginkizunarekin lotzen ditu.*
*IE 7: Esparru sozioafektiboan egindako esku-hartzea ebaluatzen du, eta erabilitako aldagaien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Haurren garapen sozialari buruzko teoria desberdinak identifikatzea.
2. Garapen sozialean esku hartzen duten agente sozialen eginkizunak deskribatzea.
3. Garapen sozialaren eboluzio-jarraibide nagusiak deskribatzea: afektibitatea, eboluzioa, atxikimendua, asaldurak.
4. Esku-hartzea diseinatzeko aldagai sozial garrantzitsuak identifikatzea.
5. Haurren esparru sozialeko eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak finkatzea.
6. Helburuekin eta haurren ezaugarriekin koherenteak diren jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatzea.
7. Haurren baitan gizarte-trebetasunak garatzeko jarduerak eta estrategiak proposatzea.
8. Ingurune soziala behatzen eta miatzen laguntzen duten jarduerak prestatzea.
9. Haurren sozializazioan eskolak duen eginkizuna baloratzea.
10. Haurren garapen osoan sozializazioak duen garrantzia baloratzea.
11. Esparru sozioafektiboko ebaluazio-tresna eta -adierazle egokienak identifikatu, diseinatu eta aplikatzea.
12. Hasierako ebaluazioaren garrantzia justifikatzea.
13. Ebaluazio-prozesutik ateratako datuak objektibotasun handienarekin erregistratzea eta ebaluazio-prozesuetatik bildutako informazioa behar bezala interpretatzea.
14. Beste profesional batzuen parte-hartzea eskatzen duten egoerak eta bete beharreko jardunbideak identifikatzea.
15. Eman beharreko informazioarekin eta haren hartzailearekin koherenteak izango diren txostenak egitea, ebaluazioaren garrantzia baloratuta eta esku-hartze desegoki baten litezkeen arrazoiak identifikatuta.
16. Hezitzaileak izan beharreko jarrerak eta bete beharreko eginkizuna deskribatzea, harreman-estilo bat identifikatzea, gizarte-trebetasunak erabiltzea, adeitasun, konfiantza eta errespetuzko giroa sortzea, eta genero-berdintasunaren printzipioa kontuan hartzea, haurren garapen sozioafektiboa errazteko.
17. Emozioak adierazi eta identifika daitezen bultzatzea, haurrek emozioak adierazi eta identifikatzean bakoitzaren erritmoak errespetatzea eta askotariko rolak betetzen lagunduko duten estrategiak aplikatzea, rolak modu sexistan esleituko ez diren moduan.
18. Espazioak antolatzea, balioak eskuratzea eta esparru sozioafektiboarekin lotutako gertaeren aurrean behar bezala jokatzea, horrela, haurren behar sozioafektiboei erantzuteko

| | | Multzoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| | • Haurraren garapen soziala behatu eta ebaluatu ahal izateko tresnak diseinatzea. | | X | | | | | |
| | • Sozializazioarekin lotutako gatazkak lantzeko ipuinak erabiltzea. | | X | | | | | |
| | • Haurraren garapen soziala erraztuko duten jarduerak prestatzea. | | X | | | | | |
| | • Haurraren garapenaren ezaugarriak aztertzea. | | X | | | | | |
| | • Garapen sozial egokia errazten duten oinarrizko beharrak identifikatzea. | | X | | | | | |
| | • Haurtzaroko garapen sozialarekin lotutako arazoak identifikatzea. | | X | | | | | |
| | • Errespetu eta tolerantziazko giroa erraztuko duten jarduerak prestatzea. | | | | | | | |
| PROZEDURAZKOAK | • Egoera ohikoenak aztertzea. | | | | | | X | |
| | • Errespetuzko egoerak erraztuko dituzten esku hartzeko jarraibideak prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Gatazkei aurre hartzeko behaketa-jarraibideak diseinatzea. | | | | | | X | |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzeko behaketa-jarraibideak prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzeko irizpideak diseinatzea. | | | | | | | X |
| | • Ebaluazio-txostenak prestatzea. | | | | | | | X |
| | • Haurren garapenei buruzko datuak biltzeko tresnak prestatzea. | | | | | | | X |
| | | | | | | | | X |
| | • Garapen sozialari buruzko teoriak. | | X | | | | | |
| | • Sozializazio-prozesuaren ezaugarriak eta gatazkak haurraren baitan. | | X | | | | | |
| | • Agenteak sozializazio-prozesuan. | | X | | | | | |
| | • Nortasuna eta ezagutza soziala eraikitzea. | | X | | | | | |
| | • Norbera ezagutzea. | | X | | | | | |
| | • Besteak ezagutzea. | | X | | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Garapen soziala errazten duten estrategiak. | | X | | | | | |
| | • Enpatiaren garapena. | | X | | | | | |
| | • Eskolaren eta hezitzailearen eginkizuna sozializazio-prozesuan. | | X | | | | | |
| | • Garapen soziala aniztasunaren aurrean. | | X | | | | | |
| | • Hezitzailearen eta haurraren arteko harremana. | | | | | | X | |
| | • Haurraren gizarte-trebetasunak. | | | | | | X | |
| | • Portaera imitatzeko ereduak. | | | | | | X | |
| | • Aniztasunarekiko arreta. | | | | | | X | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | • Gatazkak ebaztea. | | | | | | X | |
| | • Hezitzailearen eginkizuna gatazketan. | | | | | | X | |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzea. | | | | | | | X |
| | • Garapen sozioafektiboan kontuan hartu beharreko aldagaiak. | | | | | | | X |
| | • Datuak biltzeko tresnak. | | | | | | | X |
| | • Ebaluazio-txostenak. | | | | | | | X |
| | • Garapen sozioafektiboaren eragina haurraren garapen osoan. | | | | | | | X |
| JARRERAZKOAK | • Entzuteko jarrerak duen garrantziaz jabetzea. | | X | | | | | |
| | • Harreman sozialetan adiskidetzeko jarrera baloratzea. | | X | | | | | |
| | • Haurren arteko harremanetan behatzeko arrera baloratzea. | | X | | | | | |
| | • Konponbideak bilatzeko ekimena. | | X | | | | | |
| | • Aniztasun soziala errespetatzea. | | X | | | | | |
| | • Haurraren garapen sozialean familiaren eta eskolaren arteko lankidetza baloratzea. | | X | | | | | |
| | • Jarraitu beharreko eredu gisa hezitzailearen eginkizunak duen garrantziari buruzko gogoetazko jarrera. | | | | | | X | |
| | • Adiskidetzeko eta laguntzeko jarrera haurren garapen sozioafektiboan. | | | | | | X | |
| | • Haurraren garapen sozioafektiboa erraztuko duen jarrera positiboa. | | | | | | | X |
| | • Haurraren garapen osoan garapen sozioafektiboak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | | X |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | | 0,5 h. | X | | Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta.<br>Arbela.<br>Klarionak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | |
| J1 Talde-jarduera: oinarrizko kontzeptuei buruzko gogoeta (sozializazioa, adiskidetasuna, haserrea, gatazka). | 1, 9 | 15` | X | X | Irakasleak taldeko gogoeta batekin hasiko du saioa: sozializazioa, adiskidetasuna, haserrea, gatazka... zer den. | Ikasleek gogoeta bultza dezaten UDa ulertzeko argi egon behar duten kontzeptuen inguruan, eta okerreko aurreiritziak eta/edo pentsamenduak bazter ditzaten. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta.<br>Arbela.<br>Klarionak. |
| J2 "Sozializazio-agenteei" eta horiek haurrarengan dituzten ondorioei buruzko azalpena. | 2, 3, 4 | 1 h. | | X | Irakasleak klase magistrala emango du "sozializazio-agenteei" eta horiekhaurrarengan dituzten ondorioei buruz. | Ikasleek hainbat arazo ezagutu ditzaten "sozializazio-agenteen" eta horiek haurrarengan dituzten ondorioen inguruan. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J3-E1 Ikasleen praktika autonomoa: Adiskidetasunak bizitza osoan zehar duen eboluzioa azpimarratuko den egoerak planteatzea. | 1, 2, 3, 4, 8, 10 | 0,5 h. | | X | Ikasle bakoitzak egoerak planteatu beharko ditu. Horietan, adiskidetasunak bizitza osoan zehar duen eboluzioa azpimarrako du (1. haurtzaroko lagunak, ikasketa-lagunak, lanekoak, festara joatekoak, nerabezarokoak, 45 urteko garaikoak, 80 urtetik aurrerakoak...). | Ikasleengan barne-behaketa bultzatzeko, eta haientzat aberasgarriak izango diren beste ideia eta pentsamendu batzuk emateko. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J4 Ikasleen praktika autonomoa: Haurraren garapen sozialean familiak duen garrantziari buruzko gogoeta. | 2, 3, 4, 8, 10, 5, 16 | 15` | | X | Ikasle bakoitzak gogoeta egin beharko du haurraren garapen sozialean familiak duen garrantziaren inguruan. | Ikasleek printzipio argiak finka ditzaten nahi dugun sozietate motari eta sortzen ari garenari buruz. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J5-E2 Ikasleen taldeko praktika: collage bat egitea. | , 2, 3, 4, 8, 10, 516 | 1 h. | | X | Ikasleek, taldeka, egunkari eta aldizkarietako berriak bildu beharko dituzte, irudi hauek jasota: adiskidetasun-egoerak, adiskidetasun-ereduak, elkartasuna, laguntza eta gatazka-egoerak, indarkeria, laguntzarik eza, norberekeria... | Bistaratzeko ikasleek ateratzen dituzten ondorio guziak, irakurketen ondoren, erabakiengatik, taldean gogoeta egin eta gero nahiz konbentzimenduagatik. | Egunkariak.<br>Aldizkariak.<br>Kartoi meheak.<br>Berriak.<br>Irudiak.<br>Errotulagailuak.<br>Kola. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Ondoren, collage bat egin beharko dute irudi horiek euren baitan pizten dituzten sentimendu eta emozioekin, oinarrizkoenetatik hasita landuenetara iritsi arte. | | Guraizeak. |
| J6 "I Am Sam" filma ematea.<br><br>J6.1-E3 Ikasleen praktika autonomoa: J6 jarduerari buruzko azterketa kritikoa. | 2, 3, 4, 9, 7, 10, 11, 16, 17 | 1,5 h. | | X | Ikasgelan, "I Am Sam" filma ikusiko dugu.<br><br>Emanaldia amaitu ondoren, ikasleek filmaren azterketa kritikoa egingo dute eta, azterketa horretan, ateratako ondorioak azalduko dituzte. | Gai hauek lantzeko: guraso bakarreko familia minusbaliotasunarekin, gizarte-harreman desberdinak, gizarte-zerbitzuak eskolan, familia-inplikazioak, inguruneko baliabideen garrantzia. Adiskidetasunak (norberaren lagunak, abokatua, auzokoak...) duen garrantzia baloratzeko.<br>Atxikimendu-sentimendua, pozarena, elkartasunarena, berdinen taldekoa izatearena... emango duten festa integratzaileen eta taldeko jardueren garrantzia baloratzeko. | Telebista.<br>DVDa.<br>Filma.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J7 Ikasleen praktika autonomoa: Gogoeta egitea eta informazioa bilatzea adimen emozionalaren eta horrek gizarte-trebetasunekin duen loturaren inguruan.<br><br>J7.1-E4 J8 jarduerarekin lotutako baliabideak biltzea. | 7, 8, 10, 12, 16, 17, 18 | 2,5 h. | | X<br><br>X | Ikasle bakoitzak gogoeta txiki bat egin eta informazioa bilatu beharko du gai honen inguruan: adimen emozionala zer den eta gizarte-trebetasunekin zein lotura duen.<br><br>Ondoren baliabideak bilatu beharko ditu eskolak Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetan adimen emozionalarekin nola hasten den jakiteko. Gauza bera egingo du lehen gizarte-trebetasunei dagokienez (hala nola, entzute aktiboa eta enpatia). | Ikasleei tresnak ematearren askotariko jarduerak egiteko aukera gehiago izan ditzaten eta, horrela, haurrengan emozio, sentimendu, iritzi eta abarren adierazpena behar bezala bultzatzearren. | Testuliburua.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela. |
| J8 Komunikazio-estiloei buruzko | 3, 4, 7, 8, | 1 h. | | X | Irakasleak komunikazio-estiloak azaldu | Ikasleei adierazpenaren esparruan | Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| azalpena. | 16, 17 | | | | beharko ditu, hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio paraberbala barne direla, bere lanbide-esparruko egoera desberdinen bidez. | beren burua ezagutarazteko eta bizitzan ahalik eta komunikazio-estilo asertiboena erabil dezaten beharrezko tresnak emateko. | |
| J9-E5 Kasu praktikoak ebaztea, hezitzailearen eginkizuna kontuan izanda. | 7, 8, 9, 10, 16 | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak kideekin, gurasoekin, lagunekin eta ikaskideekin beraiekin ere sortuko diren egoerak ebatzi beharko ditu, gizarte-trebetasunek ematen dizkiguten tresnen bitartez. | Neurri bateko muga-egoeretan ikasleek beren burua ezagutu dezaten eta erantzun egokienak ematen ohitu daitezen. | Hezitzaileak diseinatutako suposizio praktikoak.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J2-E1 Taldeko eztabaida: sexu- eta genero-desberdintasunak gaur egun eta duela 30 urte. | 1, 2, 4, 9, 11, 17 | 0,5 h. | | X | Ikasleek, "philips 6/6" teknika landu ondoren, talde handian eta hezitzaileak moderatuta, eztabaidari ekingo diote genero-berdintasunean hitzek, jarrera profesionalek, arropak, estiloak, zereginek... duten garrantziaren inguruan. Amaitzeko, azterlan bat egingo da gaur egun genero-berdintasuna markatzen duten hitz berriei eta horien edukiari, eta diskriminazio argia markatzen zuten duela 30 urte baino gehiago erabiltzen ziren hitzei buruz. | Ikasleek komunikazioa eta entzute aktiboa gara ditzaten, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikas dezaten.<br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzeko. | Ikasgela bera.<br>Bibliografia.<br>Aldizkariak.<br>Internet. |
| J3-E2 Ikasleen praktika autonomoa: komunikabideen, publizitatearen eta familiaren bitartez gure gizartean generoak estereotipatzeari buruzko azterketa egitea. | 1, 2, 4, 8, 9, 11, 17 | 0,5 h. | | X | Ikasle bakoitzak estereotipoen garapenean esku hartzen duten faktoreak aztertu beharko ditu, publizitate-bideetan eta familiaren baitan eskaintzen digutena kontuan izanda. | Ikasleek eguneroko komunikazio-egoeretan estereotipoen garapenean esku hartzen duten faktoreak identifika ditzaten.<br>Haurrentzat eta familientzat ere egokia edo desegokia denaren behaketa eta jarrera kritiko konstruktiboa bultzatuko da. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Bibliografia.<br>Aldizkariak.<br>Internet. |
| J4-E3 Ikasleen praktika autonomoa: album moduan, egunkari eta aldizkarietako berriak biltzea hainbat ideia eta egoeraren inguruan (askatasun sexuala, amodio librea, pederastak, bortxaketak, eraso sexuala, intimitatea, birjintasuna, leialtasuna, abortua, baliabide antikontzeptiboak...).<br>Horiekin collage bat egitea. | 1, 2, 4, 7, 8, 11, 17 | 0,5 h. | | X | Album moduan, sexualitatearen ikusmolde berrietan esku hartzen duten faktoreei buruzko berriak biltzea. | Ikasleek aurretiazko kontzeptuak ebalua ditzaten.<br>Norberaren aurretiazko ideiekin lotzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko.<br>Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak antolatzeko bidea emango dieten taulak egiten | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Bibliografia.<br>Aldizkariak.<br>Internet. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | ikas dezaten. | |
| J5-E4 Talde-lana, haurrekin hezkidetza nola landu eskatuko duten 4 jarduera prestatzeari buruzkoa, baliabide hauen bitartez:<br>- 1 jolas.<br>- 1 ipuin.<br>-1 irteera.<br>-1 festa.<br><br>J5.1-E5 Ikasle bakoitzak 4 proposamenetatik 1 azaldu eta gauzatzea. | 1, 2, 3, 5, 6, 10, 12, 13, 16, 17, 18 | 1,5 h.<br><br><br><br><br><br><br><br><br>1 h. | X | X | Ikasleek, taldetan banatuta, sexualitatea, rolak eta estereotipoak lantzeko moduari buruzko zenbait jarduera prestatu beharko dituzte, haurren eboluzio-etapak kontuan izanda.<br>Esku hartzeko garaian, baliabide didaktiko ez-sexistak erabiliko dituzte. | Ikasleek haurrei garapen sexuala irakastea erraztuko dieten estrategiak, tresnak eta baliabideak beregana ditzaten. | Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| J6-E6 Aurreko jardueretan ikasleek beraiek egindako bideo-grabazioak aztertzea. | 1 | 0,5 h. | X | X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta hainbat bideo-grabaketa ikusiko dituzte. Hizkuntza desberdinak (ahozkoa, keinuzkoa, gorputzekoa) erabiltzen dituzten komunikazio-egoerak erakutsiko dira. | Ikasleek, hartzaileen adinaren arabera, adierazpen moten ezaugarriak identifika ditzaten. | Bideo-kamera.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J7 "Look who's talking" filma ikustea.<br><br>Ateratako ondorioei buruz gogoeta egitea. | 1, 2, 3, 11, 16, 17 | 1,5 h. | | X | Ikasleek bestelako familia-harremanak landuko ditu: haurraren eboluzioa, familia-inplikazioak, inguruneko baliabideen garrantzia. | Ikasleek haur jaio berriaren heziketan familiak duen garrantzia azter dezaten. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Filma.<br>Bideoa.<br>DVDa.<br>Telebista. |
| J8-E7 Ikerlana: balioei, jarrerei, trebetasunei, gustuei... dagokienez, historian zehar haurren artean izan diren desberdintasunen inguruko informazioa bilatzea. | 1, 2, 4, 7, 9 | 1 h. | | X | Ikasleak taldeka jarriko dira eta hizkuntza bereganatzeko teoriei buruzko lan bat egiteko eskatuko zaie. Desberdintasunak eta elkarren arteko osagarritasuna aztertuko dute. | Ikasleek informazioa iturri desberdinetan bilatzen, eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikas dezaten. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikas dezaten. | Testuliburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| J9 Azalpena: haur txikiek genero-estereotipoak nola bereganatzen dituzten. | 1, 2 | 1 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du garapen sexualari buruz. | Ikasleek garapen sexualaren inguruko arazoak ezagutu | Ikasgela bera.<br>Power Point-eko aurkezpena. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Garapen sexualari buruzko teorien azalpena.<br><br>J9.1-E8 Teoria nagusien arabera, garapen sexualari buruzko konparaziozko taula bat egitea. | | 0,5 h. | | X | | ditzaten. | Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J10 Azalpena: rolak sortzen esku hartzen duten eragileak. | 1, 2, 3 | 0,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du rolak sortzeari buruz. | Ikasleek jakin dezaten rolak eta estereotipoak sortzen zein eragile inplikatuta dauden. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J11-E9 Ikasleen praktika autonomoa: rola sortzean familiak duen garrantziari buruz gogoeta egitea, eta historian zehar haurren rolen inguruko hezkuntzari buruzko lan bat egitea. | 1-2, 3, 4, 5,<br>11, 17 | 0,5 h. | | X | Ikasle bakoitzak sexualitatearen heziketan haurrarekin elkarreragina duten helduen eginkizuna aztertu beharko du. | Ikasleek rol eta estereotipo sexualak hartzean familiak duen eginkizuna balora dezaten. Lan-tresna gisa, behaketa eta ondorengo gogoeta bultzatzeko. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J12 Azalpena: identifikazioaren eta anbibalentziaren mekanismoak, adimen emozionalaren printzipioak aplikatuta norberaren sexualitatea hartzean. | 1, , 2, 3, 4,<br>5, 7 | 0,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du identifikazioaren eta anbibalentziaren mekanismoei buruz, eta sexualitatea orekaz sortzeko adimen emozionalak dituen euskarriei berriro helduko die. | Ikasleek haurtzarotik sexualitatea sortzearen inguruko hainbat arazo azter ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J13-E10 Azalpena: lehen haurtzaroan sexualitate-lantegi bat nola diseinatu, haurren eboluzio-ezaugarriak kontuan izanda. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 14, 15, 16, 17, 18 | 0,5 h. | X | X | Ikasleek lantegi hori egiteko materialak ekarri beharko dituzte ikasgelara. Material horiekin, kreazio originalen bat egin beharko dute.<br>Ikasleek lantegia antolatu eta simulatuko dute, kontuan izanik:<br>Nori zuzenduta dagoen, baliabideak, helburuak, | Ikasleek beharrezko tresnak emateko, benetako egoerak topatzen dituztenean, horiek eraginkortasunez ebatzi ahal izateko.<br>Alderdi hauek ere bultzatuko | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | hezitzailearen eginkizuna, ebaluazio-tresnak eta -teknikak. | ditugu: euren autoezagutza, sormena, autokontrola, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa... | |
| J14-E11 Historian zehar izan diren jolas eta jostailu sexistei edo ez-sexistei buruzko lan bat egitea.<br>- "Hezkidetzari" buruzko dokumentazioa bilatzea, eta hura gauzatu ahal izateko estrategiak lantzea. | 3, 4, 5, 6, 7, 10, 11, 16, 17, 18 | 1,5 h. | | X | Ikasleek, taldetan banatuta, adinen araberako jolasen eta jostailuen katalogo bat idatziz entregatu beharko dute, hezkidetzaren printzipioa kontuan izanda. | Ikasleek ikas dezaten rol eta estereotipo sexualak lantzeko jarduera, baliabide eta estrategia egokiak proposatzen.<br>Jardueren diseinuan sormenezko proposamenak egiten ikas dezaten. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| J15-E12 Talde-lana: haurrentzako komiki bat marraztea, genero-estereotipo desberdinak islatuko dituzten eguneroko bizitzako egoerak jasota. | 3, 4, 5, 6, 7, 10, 11, 16, 17, 18 | 1 h. | | X | Ikasleek, taldeka, komiki bat egin beharko dute, gure ikasleen baitan sortu nahiko genituzkeen estereotipo egokiak kontuan izanda. | Ikasleek informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikas dezaten. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak antolatzeko bidea emango dieten komikiak, ipuinak... egiten ikas dezaten. | Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| J16-E13 Taldeko praktika: gure etxean eta familietan, eguneroko zereginez, eta seme-alaben zaintzaz eta hezkuntzaz zein arduratzen den aztertzeko gogoeta.<br>Horma-irudi batean, aipatutako zeregin guztiak jasotzea, zeinek egiten dituen adierazita: aitak, amak, aitona-amonek, seme-alabek... | 11, 12, 16, 17, | 0,5 h. | | X | Ikasleek, taldeka, horma-irudi bat egingo dute. Bertan, sexu eta rol bakoitzari esleitutako zereginak jasoko dituzte, gure gizartean dauden estereotipoak eta gure ikasleen baitan sortu nahi genituzkeenak kontuan izanda. | Ikasleek, gure errealitatea aztertu ondoren, jarduerak diseinatzean sormenezko proposamenak egiten ikas dezaten. | Ikasgela bera.<br>Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua.<br>Kartoi meheak, marrazkiak, pinturak eta gainerako material suntsikorra. |
| J17 Azalpena: haurren sexualitatearen asaldurak.<br>Eskolaren funtzionamendua. Esku | 1, 3, 4, 5, 14 | 0,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du haurren sexualitatearen asaldurei eta horietarako konponbide posibleei buruz. | Ikasleek hainbat arazo ezagutu ditzaten haurren sexualitatearen asaldurei, eta horietarako | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| hartzeko protokoloa deskribatzea J17 jarduerarekin lotuta. | | | | | | hautabideei eta eguneroko konponbideei buruz. | |
| J18-E14 Ikasleen taldeko praktika autonomoa: ipuin herrikoi batzuk aztertzea, hala nola, Txanogorritxo. Edurne Zuri, Bizar Urdin, Zazpi antxumeak... | 4, 5, 8, 10, 11, 17, 16 | 1 h. | | X | Ikasleek ipuinetan emakumezkoen eta gizonezkoen pertsonaiak nola tratatzen diren eta zein balio irudikatzen dituzten aztertu beharko dute. | Ikasleek gogoeta egin dezaten ipuin herrikoien irakaskuntzei, eta horiek transmititzen dituzten rolei eta estereotipoei buruz. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Ikasgela bera.<br>Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua.<br>Kartoi meheak, marrazkiak, pinturak eta gainerako material suntsikorra. |
| J19-E15 Ikasleen praktika autonomoa: jardunbide egokien eskuliburu bat egitea, gurasoentzako oharrekin seme-alaben eboluzio sexualari buruz, eta gomendatutako artikuluak eta haur-literatura kontuan izanda. | 4, 5, 8, 10, 11, 14, 17, 16 | 1 h. | | X | Ikasleek eskuliburu bat egin beharko dute. Bertan, ikasitako oinarrizko kontzeptuak, eta rolen eta estereotipoen sorkuntzan edozein asaldura arintzeko aholkuak adieraziko dituzte.<br>Era berean, gurasoei seme-alabak hezten lagunduko dieten artikuluak eta haur-literatura hautatuko dituzte. | Ikasleek oinarrizko tresnak eta konpetentziak izan ditzaten informazioa kudeatzeko, erabakitzeko gaitasuna izateko eta taldean lan egiteko. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Ikasgela bera.<br>Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua.<br>Kartoi meheak, marrazkiak, pinturak eta gainerako material suntsikorra. |
| J20-E16 Eztabaida: homosexualitatearen baitan adopzioaz dihardunten egungo berriak.<br>Laguntzeko, "The Birdcage" filma ikusiko dugu.<br><br>Familia protagonistaren hezkuntza-ereduari buruz gogoeta egitea eta horren hautabideak proposatzea.<br>Autoirudi positiboarekin eta familiako kide | 4, 5, 8, 10, 11, 14, 17, 16 | 1,5 h. | X | X<br><br><br><br><br><br>X | Ikasleek, nahi dugun gizarte-ereduaren protagonista gisa, familiaren hezkuntza-ereduari buruz gogoeta egin eta horren hautabideak proposatu beharko dituzte.<br><br>Autoirudi positiboarekin eta familiako kide bakoitzaren autoezagutzarekin lotutako kontzeptuak baloratuko dituzte, haurraren aldetik "familia desberdina" izatea behar bezala onartzeko. | Ikasleek komunikazioarekin eta adierazpenarekin lotutako ezintasunen inguruan gogoeta egin eta horiek aztertzeko, eta adopzioari buruz dituzten aurrekontzeptuak antzemateko. Ezintasun jakin batzuen aurrean esku hartzeko modu zuzena ezagutzeko balio du. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Telebista.<br>DVDa.<br>Bideoa.<br>Filma. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| bakoitzaren autoezagutzarekin lotutako kontzeptuak baloratzea. | | | | | | | |
| J21-E17 Kasu praktikoak ebaztea.<br>Seme-alabak emozionalki/sexualki hezteko moduari buruzko zenbait liburu irakurtzea.<br>Bai hezitzaileentzako, bai gurasoentzako ere aholku praktikoak ateratzea.<br>Kurtsoko gurasoen ustezko bilera bat planifikatzea, eta lehen irakurritako liburuetatik ateratako aholku praktikoen inguruan haiei hitzaldi bat ematea. | 3, 4, 5, 6, 7, 10, 11, 16, 17, 18. | 1 h. | | X | Irakasleak ikasleei zenbait liburu emango dizkie. Horietan, 0 eta 6 urte bitarteko haurren hezkuntza sexualarekin lotutako egoerak edo arazoak planteatuko dira. Ikasleek liburu bakoitza irakurri eta zer proposatzen diguten aztertu beharko dute, hezitzailearentzat eta gurasoentzat aplikagarriak izango diren aholkuak ateratzeko asmoz.<br><br>Ikasleek, taldetan banatuta, familiarekin egin beharreko bilera bat prestatu eta simulatu beharko dute, zenbait orientabide emateko asmoz, adibidez, "nola hezi zure seme-alabaren sexualitatea". Gehienez 30 minutukoa izango da, eta argia, eskematikoa eta osatua izan behar du. | Ikasleek ikas dezaten familiari haurraren garapen sexualerako lagungarriak diren baldintza egokiei buruz emango zaion informazioa egituratzen. | Aurretiaz hautatutako liburuak, irakasleak diseinatu edo hautatutakoak.<br>Ikasgela bera.<br>Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua.<br>Kartoi meheak, marrazkiak, pinturak eta gainerako material suntsikorra. |
| J22-E18 Ikerlana: landa-lana, parke publiko batean jolasak behatzeko; bertan, arropa, jolasak, keinuak, mugimenduak, jostailuak, hitzak, abestiak eta hezitzaileen birao ohikoenak behatuko ditugu.<br><br>J22.1-E19 Azterketa J2 2 jardueraren inguruan.<br><br>J22.2-E20 Balorazio kritikoa J2 2 jardueraren inguruan. | 3, 4, 5, 6, 7, 10, 11, 16, 17, 18 | 2 h. | | X<br><br>X<br><br>X | Ikasleek, taldetan banatuta, materialak bildu eta haurren behaketaren ondoriozko oharrak jaso beharko dituzte, ezarritako inolako araurik gabe.<br><br>Bildutako materiala aztertuko dute, eta familiekin eta haurrekin landu ahal izango diren jarraibideak ezarriko dituzte, haurren eboluzio-unea kontuan izanda.<br><br>Ondoren, orientabideak ikasgelan aplikatzeko eta familiei emateko egokiak ote diren baloratu beharko dute. | Ikasleak gai izan daitezen informazioa iturri desberdinetan bilatu, aukeratu eta alderatzeko. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikas dezaten. | Testuliburuak.<br>Internet.<br>Ordenagailu-gela.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J23-E21 Praktika autonomoa: familientzako informazio-tresnak prestatzea. | 12, 13, 14, 15, | 1 h. | | X | Ikasleek hainbat informazio-tresna landuko dituzte, ohiturak hartzeko prozesuaren ebaluazioan lortutako informazioa familiei ezagutzera emateko. | Ikasleek familiarentzako informazio-tresnak lantzen ikas dezaten, eboluzio sexualari buruz seme-alabekin egindako ebaluazioaren inguruan. | Testuliburua.<br>Ordenagailuak.<br>Inprimagailua. |
| J24-E22 Talde-lana: ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren datuak jasotzea.<br><br>J24.1-E23 Talde-lana: ebaluazio-tresnak aplikatzea.<br><br>J24.2-E24 Talde-lana: jasotako informazioa egoki interpretatzea. | 9, 10, 11, 13, 14, 15, 16, 17, 18 | 0,5 h.<br><br>0,5 h.<br><br>0,5 h. | | X<br><br>X<br><br>X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta haur-talde bat behatu beharko dute. Eboluzio sexual egokia hartzeko prozesua ebaluatzeko beharrezkoak diren datuak jasotzeko eskatuko zaie.<br><br>Horretarako, eboluzio sexuala lortzeari buruzko ebaluazio-tresna egokiak aplikatu beharko dituzte, prozedura zuzenari jarraituz.<br><br>Ondoren, irakasleari txosten bat emango diote, eta jasotako informazioa eta lortutako ondorioak adieraziko dituzte bertan. Irakasleak txostena zuzendu eta baloratuko du. | Ikasleek esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen ikas dezaten, oinarrizko beharrei erantzuteari eta autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeari dagokionez, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifika dezaten.<br>Bildutako informazioa ondo interpreta dezaten.<br>Haurrek eboluzio sexuala lortzearekin lotutako litezkeen gatazkak eta asaldurak identifika ditzaten. | Ebaluazio-tresnak. |
| J25-E25 Ikasleen praktika autonomoa: haurren sexualitatea garatzen laguntzen duten esku-hartzeak programatzeko material teorikoari buruzko txosten bat egitea. | Guztiak | 1 h. | | X | Ikasle bakoitzak txosten batean jasoko ditu unitate didaktikoan landutako eduki teoriko garrantzitsuenak. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet.<br>Pendrive-ak/disketeak.<br>Inprimagailua. |
| E26 Berariazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h. | | X | Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka. | Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balioko du. | Azterketa. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.<br>• Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu. |

| 5. unitate didaktikoa: PORTAERAKO ASALDURA ETA GATAZKA OHIKOENETAN ESTRATEGIAK PROGRAMATU, ABIARAZI ETA EBALUATZEA | Iraupena: 32 ordu |
|---|---|

*IE5: Haurren ohiko portaera-asalduretan eta harremanetako gatazketan esku hartzeko estrategiak programatzen ditu. Horretarako, portaera aldatzeko teoriak eta teknikak aztertzen ditu.*
*IE6: Esparru sozioafektiboan esku hartzeko programak eta jarduerak abiarazten ditu, eta horiek hezitzailearen estrategia metodologikoekin eta eginkizunarekin lotzen ditu.*
*IE7: Esparru sozioafektiboan egindako esku-hartzea ebaluatzen du, eta erabilitako aldagaien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Portaera aldatzeko teoria eta teknika nagusiak deskribatzea.
2. Pertsonen arteko harremanetan haurtzaroan ohikoenak diren portaera-asaldurak eta gatazkak identifikatzea.
3. Esku hartzeko programaren faseak ezartzea.
4. Esku-hartzearen programazioan diagnostikoak duen garrantzia baloratzea.
5. Portaera- edo harreman-asalduren sorburuak identifikatzeko estrategiak eta tresnak ezartzea.
6. Egoera bakoitzerako esku hartzeko teknika egokienak identifikatzea.
7. Haurren artean adostasuna errazten duten estrategiak deskribatzea.
8. Esku-hartzearen jarraipena egiteko tresnak egokienak deskribatzea.
9. Haurren portaera-arazoen eta harreman-gatazken aurrean hezitzailearentzako jardunbide egokiak deskribatzea.
10. Haurrek portaera modulatu eta kontrolatzeko dituzten mugak baloratzea.
11. Esparru sozioafektiboko ebaluazio-tresna eta -adierazle egokienak identifikatu, diseinatu eta aplikatzea.
12. Hasierako ebaluazioaren garrantzia justifikatzea.
13. Ebaluazio-prozesutik ateratako datuak objektibotasun handienarekin erregistratzea eta ebaluazio-prozesuetatik bildutako informazioa behar bezala interpretatzea.
14. Beste profesional batzuen parte-hartzea eskatzen duten egoerak eta bete beharreko jardunbideak identifikatzea.
15. Eman beharreko informazioarekin eta haren hartzailearekin koherenteak izango diren txostenak egitea, ebaluazioaren garrantzia baloratuta eta esku-hartze desegoki baten litezkeen arrazoiak identifikatuta.
16. Hezitzaileak izan beharreko jarrerak eta bete beharreko eginkizuna deskribatzea, harreman-estilo bat identifikatzea, gizarte-trebetasunak erabiltzea, adeitasun, konfiantza eta errespetuzko giroa sortzea, eta genero-berdintasunaren printzipioa kontuan hartzea, haurren garapen sozioafektiboa errazteko.
17. Emozioak adierazi eta identifika daitezen bultzatzea, haurrek emozioak adierazi eta identifikatzean bakoitzaren erritmoak errespetatzea eta askotariko rolak betetzen lagunduko duten estrategiak aplikatzea, rolak modu sexistan esleituko ez diren moduan.
18. Espazioak antolatzea, balioak eskuratzea eta esparru sozioafektiboarekin lotutako gertaeren aurrean behar bezala jokatzea, horrela, haurren behar sozioafektiboei erantzuteko.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| PROZEDURAZKOAK | • Gatazka ohikoenen jarraipena egiteko tresnak prestatzea. | | | | | X | | |
| | • Portaerako asalduren ezaugarri ohikoenak aztertzea. | | | | | X | | |
| | • Gatazka handieneko egoerak aztertzea. | | | | | X | | |
| | • Portaerako asaldura ohikoenak behatu eta ebaluatzeko tresnak diseinatzea. | | | | | X | | |
| | • Gatazka ohikoenak lantzeko ipuinak erabili eta prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Gatazkarik gabeko egoerak erraztuko dituzten jarduerak prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Portaerako arazoekin lotutako asaldurak identifikatzea. | | | | | | X | |
| | • Errespetu eta tolerantziazko giroa erraztuko duten jarduerak prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Egoera ohikoenak aztertzea. | | | | | | X | |
| | • Errespetuzko egoerak erraztuko dituzten esku hartzeko jarraibideak prestatzea. | | | | | | X | |
| | • Gatazkei aurre hartzeko behaketa-jarraibideak diseinatzea. | | | | | | X | |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzeko behaketa-jarraibideak prestatzea. | | | | | | | X |
| | • Garapen sozioafektiboa ebaluatzeko irizpideak diseinatzea. | | | | | | | X |
| | • Ebaluazio-txostenak prestatzea. | | | | | | | X |
| | • Haurren garapenei buruzko datuak biltzeko tresnak prestatzea. | | | | | | | X |
| KONTZEPTUZKOAK | • Portaerako asaldura eta gatazka ohikoenei buruzko teoriak. | | | | | X | | |
| | • Portaera aldatzeko teknikak. | | | | | X | | |
| | • Gatazkak ikasgelan. | | | | | X | | |
| | • Gatazkak portaeran. | | | | | X | | |
| | • Aniztasunarekiko arreta portaerako arazoetan. | | | | | X | | |
| | • Hezitzailearen eginkizuna gatazketan. | | | | | X | | |
| | • Hezitzailearen eta haurraren arteko harremana. | | | | | | X | |
| | • Haurraren gizarte-trebetasunak. | | | | | | X | |
| | • Portaera imitatzeko ereduak. | | | | | | X | |
| | • Aniztasunarekiko arreta. | | | | | | X | |
| | • Gatazkak ebaztea. | | | | | | X | |
| | • Hezitzailearen eginkizuna gatazketan. | | | | | | X | |
| |     • Garapen sozioafektiboa ebaluatzea. | | | | | | X | |
| |     • Garapen sozioafektiboan kontuan hartu beharreko aldagaiak. | | | | | | X | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ◦ Datuak biltzeko tresnak. | | | | | | X | |
| | ◦ Ebaluazio-txostenak. | | | | | | X | |
| | • Garapen sozioafektiboaren eragina haurraren garapen osoan. | | | | | | | X |
| JARRERAZKOAK | • Behatzeko jarrerak duen garrantzia baloratzea. | | | | | X | | |
| | • Ikasgelako gatazka-egoeretan familiaren eta eskolaren arteko lankidetza baloratzea. | | | | | X | | |
| | • Gatazken litezkeen sorburuak aztertzeko lankidetzazko jarrera. | | | | | X | | |
| | • Jarraitu beharreko eredu gisa hezitzailearen eginkizunak duen garrantziari buruzko gogoetazko jarrera. | | | | | | X | |
| | • Adiskidetzeko eta laguntzeko jarrera haurren garapen sozioafektiboan. | | | | | | X | |
| | • Haurraren garapen sozioafektiboa erraztuko duen jarrera positiboa. | | | | | | | X |
| | • Aniztasuna errespetatzea. | | | | | | | X |
| | • Haurraren garapen osoan garapen sozioafektiboak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | | X |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | | 0,5 h. | X | | Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta. |
| J1 Azalpena: portaera normalak eta patologikoak. | 2, 5, 10 | 0,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du portaera patologikoei, portaera-asaldurei eta horien ondorioei buruz.<br>Hasteko, portaera normala edo patologikoa | Ikasleek portaera normalaren eta patologikoaren definizioak eta portaera-asaldura deitutakoen litekeen sailkapena ezagutu ditzan. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | zer den aztertzeko gogoeta egingo da. Portaera patologikotzat zer ulertzen den zehazteko dagoen zailtasunari buruzko gogoeta egingo da. | | |
| J2 Azalpena: arazo psikopatologikoak. Horiek portaera-asalduretatik bereiztea, adibideen bitartez.<br>Portaera-asalduren sailkapenari buruzko azalpena.<br><br>J2.1-E1 Talde-lana: DSM-IV R eskuliburuaren arabera, harreman-arazo txikiak (kasketak, arauen aurka egitea, jeloskortasuna, beldurrak, gezurrak eta toteldura fisiologikoa) eta handiak (autismoa, eskizofrenia, elikaduraren asaldurak, esfinter-asaldurak, loaren asaldurak, hiperaktibitatea) sailkatuko dituen taula egitea. | 2, 4, 9, 10 | 1 h. | X | <br><br><br><br><br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du portaera-asalduren sailkapenari buruz. Gaia argituko duen bibliografia ezagutu behar da.<br><br>Ikasleek taula bat egin beharko dute, bertan haurtzaroko portaera-asaldura gehienak bistaratu ahal izateko. | Ikasleek ikasgelan topa daitezkeen asaldura nagusiak eta horien sintomak zein diren jakin dezaten eta gai hori medera dezaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak.<br>. |
| J3 Kasketei buruzko azalpena.<br><br><br><br>J3.1-E2 Ikasleen praktika autonomoa: kasketei aurre egiteko jardunbide egokien eskuliburu bat egitea. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X | <br><br><br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du kasketei eta mugak jartzearen garrantziari buruz.<br><br>Ondoren, ikasleek eskuliburu bat egin beharko dute. Bertan, kasketak izan ohi dituzten umeen aurrean jokatzeko iradokizunak eta jardunbide egokiak jasoko dituzte. | Ikasleek kasketen agerpen guztiak ezagutu ditzaten.<br>Eta horiek ikasgelan eta familiarekin konpontzeko hautabideak eta iradokizunak ere ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J4 Jeloskortasunari buruzko azalpena.<br><br>J4.1-E3 Ikasleen praktika autonomoa: | | 1,5 h. | X | <br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du jeloskortasunari eta horren ondorioei buruz.<br><br>Ondoren, ikasleek eskuliburu bat egin | Ikasleek jeloskortasunaren agerpen guztiak ezagutu ditzaten.<br>Eta horiek ikasgelan eta familiarekin konpontzeko hautabideak eta | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| jeloskortasunari aurre egiteko jardunbide egokien eskuliburu bat egitea. | | | | | beharko dute. Bertan, jeloskor azaldu ohi diren umeen aurrean jokatzeko iradokizunak eta jardunbide egokiak jasoko dituzte. | iradokizunak ere ezagutu ditzaten. | |
| J5 Azalpena: lo-ohiturak eta loaren asaldurak.<br><br>J5.1-E4 Ikasleen praktika autonomoa: lo-arazoetarako jardunbide egokien eskuliburu bat egitea. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X | <br><br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du haurren loari eta horren asaldurei buruz.<br><br>Ondoren, ikasleek eskuliburu bat egin beharko dute. Bertan, lo-arazoak dituzten umeen aurrean jokatzeko iradokizunak eta jardunbide egokiak jasoko dituzte. | Ikasleek loaren asalduren agerpen guztiak ezagutu ditzaten.<br>Eta horiek ikasgelan eta familiarekin konpontzeko hautabideak eta iradokizunak ere ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J6 Azalpena: Kanner-en autismoaren, Asperger-en asalduraren eta Rett-en asalduraren arteko desberdintasunak.<br><br>J6.1-E5 Ikasleen praktika autonomoa: autismoari aurre egiteko jardunbide egokien eskuliburu bat egitea.<br><br>J6.2 Autismoko hezkuntza-espezialista baten hitzaldia. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X<br><br><br><br><br><br><br><br><br>X | <br><br><br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du autismoari buruz. Espezialistak emandako informazioan oinarrituko da.<br><br>Ondoren, ikasleek eskuliburu bat egin beharko dute. Bertan, autismoa duten umeen aurrean jokatzeko iradokizunak eta jardunbide egokiak jasoko dituzte.<br><br>Espezialistak hitzaldi bat emango du eskolan ohikoenak diren asalduretan esku hartzeari eta familiarekin esku hartzeari buruz. | Ikasleek autismoaren agerpen guztiak ezagutu ditzaten.<br>Eta horiek ikasgelan eta familiarekin konpontzeko hautabideak eta iradokizunak ere ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J7 Hiperaktibitateari buruzko azalpena. Haur bat oso mugitua soilik dela eta hiperaktiboa ez dela esateko zertan oinarritzen garen.<br><br>J7.1-E6 Ikasleen praktika autonomoa: hiperaktibitateari aurre egiteko jardunbide egokien eskuliburu bat egitea. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X | <br><br><br><br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du hiperaktibitateari buruz.<br><br><br><br>Espezialistak emandako informazioan oinarrituko da.<br>Ondoren, ikasleek eskuliburu bat egin beharko dute. Bertan, hiperaktibitate- | Ikasleek hiperaktibitatearen agerpen guztiak ezagutu ditzaten.<br>Eta horiek ikasgelan eta familiarekin konpontzeko hautabideak eta iradokizunak ere ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J7.2. Hiperaktibitateko espezialista baten hitzaldia. | | | X | | arazoak dituzten umeen aurrean jokatzeko iradokizunak eta jardunbide egokiak jasoko dituzte.<br><br>Espezialistak hitzaldi bat emango du eskolan ohikoenak diren asalduretan esku hartzeari eta familiarekin esku hartzeari buruz. | | |
| J8 Azalpena: haur supergaituak, ahalmen handiak, aparteko talentuak, jenioak.<br><br>J8.1-E7 Ikasleen praktika autonomoa: ahalmen handiak dituzten umeen aurreko jardunbide egokien eskuliburu bat egitea.<br><br>J8.2. Berritzegunearen hitzaldia kasu horietarako bere jardunari buruz. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X<br><br>X | X | Irakasleak klase magistrala emango du ahalmen handiak dituzten haurrei buruz.<br><br>Espezialistak emandako estrategietan oinarrituko da.<br>Ondoren, ikasleek eskuliburu bat egin beharko dute. Bertan, ahalmen handiak dituzten umeen aurrean jokatzeko iradokizunak eta jardunbide egokiak jasoko dituzte.<br><br>Espezialistak hitzaldi bat emango du eskolan ohikoenak diren asalduretan esku hartzeari eta familiarekin esku hartzeari buruz. | Ikasleek haur supergaituen agerpen guztiak ezagutu ditzaten.<br>Eta horiek ikasgelan eta familiarekin konpontzeko hautabideak eta iradokizunak ere ezagutu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J9-E8 Eztabaida: gizarteak ekarritako konponbideen eta baliabideen egokitasuna.<br>Arazo psikopatologikoei eta portaera-asaldurei buruzko artikuluetan bilatuko dugu informazioa, bai dibulgazioko aldizkarietan eta Interneten, bai aldizkari eta liburu espezializatuetan. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1 h. | X | X | Ikasleek historian zehar eskolan aplikatu diren eta oraindik aplikatzen diren baliabideak eta hautabideak bilatuko dituzte.<br>Eztabaidak ikasleen baitan indartu egingo du hautabide guztiak baliagarriak eta, ondorioz, erabilgarriak izan daitezkeenaren ikuspegia, gure haurra ere desberdina delako. | Ikasleen komunikazio-gaitasunak, bestearekiko errespetukoak eta enpatiakoak indartzeko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J10-E9 Ikerlana: beste asaldura batzuk, hala nola, onikofagia, toteltasuna, haurren | 2, 4, 9, 10, 11, | 1 h. | | X | Ikasleek, prestakuntza osatzeko, hain ohikoak ez badira ere gaur egun dauden | Ikasgelan topa daitezkeen beste asaldura batzuk, edota familiaren | Testuliburuak.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| depresioa, haurren antsietatea, haurren dolua.<br><br>J10.1-E10 Taldetan banatuta, talde handiarekin bateratze-lana egitea. | 14, 16, 17, 18 | | X | | beste asaldura batzuk aztertuko ditu.<br><br>Ikasleek taldetan egingo dute lan. Talde bakoitzak gai bat aukeratuko du eta talde handiaren aurrean azalduko du. | interesekoak izan daitezkeenak (haur-eskolarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik etxean gerta daitezkeelako), bilatzen, aukeratzen eta alderatzen ikasteko. | Ordenagailu-gela. |
| J11 Azalpena: haur-eskolara doan ume batek arazo psikologikoren bat izan dezakeela susmatzen denean eman beharreko urratsak. | 2, 4, 5, 14 | 0,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du, laguntza berezia behar duen ikasgelako kasu baten aurrean erabili beharreko baliabideei, laguntzei eta funtzionatzeko erari buruz. | Ikasleen komunikazio-gaitasunak, bestearekiko errespetukoak eta enpatiakoak indartzeko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J12-E11 Aurreko bi jardueren inguruan gogoeta egin ondoren, Power Point-eko fitxategi batean, taldeka, haurtzaroko portaera- eta harreman-arazo ohikoenak, eta horretarako litezkeen konponbideak eta baliabideak jasoko dira. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1 h. | | X | Ikasleek laburpen grafiko bat egingo dute, orain artean landutako guztia ulertzen lagunduko baitie. | Ikasleen baitan, etorkizunean izango duten lanari begira, kultura-maila guztietako familientzat ulergarriak izango diren ideiak argiak eta zehatzak laburtu eta planteatzeko gaitasuna garatzearren. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J13-E12 Ikasleen praktika autonomoa: “0 eta 6 urte bitarteko neure seme-alaba hezteko moduari” buruzko liburuak irakurtzea.<br>J13.1-E13 Gehien gustatu zaiena aukeratu eta laburpen bat entregatuko du. | 2, 4, 7, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 2 h. | | X | Ikasleek, prestakuntza osatzeko, hiztegia zabalduko dute, etorkizuneko euren lanbiderako segurtasuna eskuratuko dute eta hori guztia zenbait jardueratan gauzatuko dute. | Ikasleek ikasgelan ekarritako oinarri teorikoa indartu dezaten. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J14-E14 Taldeko praktika:<br>Rol-playing bat egitea, aurreko jardueran landutako ezagupenekin tutoretza-ekintza bat simulatzeko: eguneroko hezkuntza-lanean sortzen diren egoera gatazkatsuak eta labainak konpontzea.<br><br>J14.1 Hezitzailearen eginkizuna, gizarte-trebetasunak eta litekeen bitartekotza | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X | X | Ikasleek profesionalak bailiran simulatuko dute, euren irudi pertsonala zainduko dute eta gatazka bat ebazteko tutoretza baterako gidoi egituratu bat landuko dute. | Ikasleen baitan bitartekotzan aritzeko, gatazkak ebazteko, eta irudi pertsonala eta profesionala zaintzeko gaitasunak indartzearren. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| batean erakutsi behar dituen jarrerak. | | | | | | | |
| J15-E15 Beste hezkuntza-espazio batzuk bisitatzea.<br>Familiekin komunikatzeko beste era batzuk erregistratzea.<br>Tutoretza-ekintzari aurre egiteko era desberdinak erregistratzea.<br>Elkarrizketa-eredu desberdinei aurre egitea.<br>Elkarbizitza-plan desberdinak eskatzea.<br><br>J15.1-E16 Aurreko jardueran landutakoa aztertzea eta bateratze-lana egitea. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X | X<br><br><br><br><br><br><br><br><br><br>X | Beste ikastetxe batzuk bisitatuko dira, eta familiekin komunikatzeko moduei eta aukeratutako ikastetxeetan abian jartzen dituzten elkarbizitza-planei buruzko informazioa jasoko dute ikasleek.<br><br>Ondoren, ikasleek jasotako material guztia berrantolatu eta gauzarik deigarri edo originalenak azaldu beharko dituzte. | Ikasleei onargarriak diren beste elkarbizitza-modu batzuk, beste erregistro batzuk eta familiekin harremanetan jartzeko beste era batzuk ezagutzera emateko.<br><br>Ikasleek gogoeta egin dezaten, eta behatutakoa eta ikasitakoa ikaskideekin bateratu dezaten. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J16. Talde-lana: “The Other Sister” filma aztertzea.<br>Haurren eta minusbaliotasunak dituztenen baitan estimulazio goiztiarra lantzea.<br><br>J16.1-E17 Ikasleen praktika autonomoa: hain gizarte lehiakorrerako prestatzeko, minusbaliotasuna duten pertsonak estimulatzeari eta ahalik eta tresna gehienak emateari buruz gogoeta egitea. | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 1,5 h. | X | X<br><br><br><br><br>X | Ikasleek filma ikusiko dute, gatazka pertsonal jakin batzuk konpontzeko moduari buruzko datuak lortuko dituzte, eta hezkuntzan eta prebentzioan duten zereginaren garrantzia kontuan hartuko dute.<br><br>Ondoren, ikasleek estimulazio goiztiarra gauzatzeak duen garrantziari buruz gogoeta egingo dute. | Entzutearen, estimulazio goiztiarraren eta haurrak txiki-txikiak direnetik egin daitekeen esku-hartze egokiaren garrantziari buruz gogoeta egiteko. | Telebista, DVDa.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet. |
| J17-E18 Talde-lana, haurrekin ohiturak nola landu eskatuko duten jarduerak prestatzeko, baliabide hauen bitartez:<br>- 2 jolas.<br>- 2 ipuin.<br>- 2 irteera.<br>- 2 festa.<br><br>J17.1-E19 Ikasleen praktika autonomoa: | 2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18 | 2 h. | <br><br><br><br><br><br><br><br>X | X<br><br><br><br><br><br><br><br>X | Ikasleek, taldetan banatuta, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako jarduerak diseinatuko dituzte zenbati materialekin.<br><br><br><br><br><br><br><br>Ondoren, ikasleek taldeko gainerakoei | Ikasgelan eta familiarekiko mugak lantzeko helburu eta jarduera egokiak finkatzearren. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| aurreko jarduerako lau proposamenetako bakoitzerako jarduera bana azaldu eta egitea. | | | | | aukeratutako jarduera guztiak azalduko dizkiete, haurrak dauden ikasgela bat simulatuta. | | |
| J18 Teknika kognitibo-portaerazkoei buruzko azalpena. Familia-orientazioari aplikatutako portaera-aldaketa, tekniken multzo bat ez ezik, teknologia bat zergatik den argudiatzea.<br><br>J18.1-E20 Ikasleen praktika autonomoa: taula eskematiko batean, portaera aldatzeko programa batek dakartzan fasek eta fase bakoitzaren ereduzko adibideak jasotzea. | 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 16, 17, 18 | 1 h. | X | <br><br>X | Irakasleak klase magistrala emango du teknika kognitibo-portaerazkoei buruz.<br><br>Ondoren, ikasleek, taula batean, portaera aldatzeko teknikak eta horiek behar bezala aplikatzeko arauak jasoko dituzte. | Ikasleek ikasgelan portaerak aldatzen lagundu dezaketen tresnak ezagutu eta mendera ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J19 Honako gaiei buruzko azalpena:<br>1. Portaera desiragarriak erraztu eta sustatuko dituzten teknikak. Zenbait teknika desberdin aplikatuko direneko kasuen hiru eredu planteatzea.<br><br>2. Portaera disruptiboak sortzen deneko egoerak azaltzea eta horiek aldatzeko teknika egokienak hautatzea.<br><br>3. Maiztasun txikiko egokitze-portaerak sustatzeko estrategia egokienak azaltzea. | 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 16, 17, 18 | 1 h. | X<br><br>X<br><br>X | | Irakasleak klase magistrala emango du teknika kognitibo-portaerazkoei buruz. | Ikasleek ikasgelan portaerak aldatzen lagundu dezaketen tresnak ezagutu eta mendera ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J20-E21 Ikasleen praktika autonomoa: gutxienez bi teknika desberdin aplikatuko direneko hiru kasu planteatzea eta, horrela, beharren eta testuinguruen arabera, | 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 16, | 2 h. | | X | Ondoren, ikasleek portaera-arazoak dituzten haurrei buruzko zenbait kasu planteatu beharko dituzte. Portaera aldatzeko programa eta horren ebazpidea | Ikasleek ikasgelan portaerak aldatzen lagundu dezaketen tresnak ezagutu eta mendera ditzaten.<br>Haurrekin esku hartzean eraginkorra | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| portaera aldatzeko programa kognitibo-portaerazkoak prestatzea.<br><br>J20.1. Azalpena: hezitzaileak izan behar duen profila portaera aldatzeko programa bat aplikatzeko. | 17, 18 | | <br><br><br>X | | prestatuko dute, haurraren eboluzio-unea kontuan izanda. Aldaketa horretan erabilitako materialak azalduko dituzte.<br><br>Irakasleak klase magistrala emango du, portaera aldatzeko programa bat aplikatzean hezitzaileak kontuan hartu beharreko jarrerari, balioei, prestasunari eta gizarte-trebetasunei buruz. | izateko beharrezkoak diren komunikazio-trebetasunak kontuan hartu beharko dituzte. | |
| J21-E22 Praktika autonomoa: familientzako informazio-tresnak prestatzea. | 12, 13, 14, 15 | 1 h. | | X | Ikasleek hainbat informazio-tresna landuko dituzte, litezkeen portaera-asaldurei, horien diagnostikoari eta horiek konpontzeko dauden hautabideei buruzko ebaluazioan lortutako informazioa familiei ezagutzera emateko. | Litezkeen portaera-asaldurei, horien diagnostikoari eta horiek konpontzeko dauden hautabideei buruzko ebaluazioaren inguruan, familiarentzako informazio-tresnak lantzen ikasteko. | Testuliburua.<br>Ordenagailuak.<br>Inprimagailua. |
| J22-E23 Talde-lana: ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren datuak jasotzea.<br><br>J22.1-E24 Talde-lana: ebaluazio-tresnak aplikatzea.<br><br>J22.2-E.25 Talde-lana: jasotako informazioa ondo interpretatzea. | 12, 13, 14, 15 | 1,5 h. | | X<br><br>X<br><br>X | Ikasleak taldeka antolatuko dira eta haur-talde bat behatu beharko dute. Portaera-asaldurak eta horien eboluzioa ebaluatzeko beharrezkoak diren datuak jasotzeko eskatuko zaie.<br><br>Horretarako, ebaluazio-tresna egokiak erabili beharko dituzte, ikasgelan sor daitezkeen portaera-asaldurak neurtu ahal izateko, prozedura zuzenari jarraituz.<br><br>Ondoren, irakasleari txosten bat emango diote, eta jasotako informazioa eta lortutako ondorioak adieraziko dituzte bertan. Irakasleak txostena zuzendu eta baloratuko du. | Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzeko, portaera aldatzeko programa baten tratamenduari dagokionez, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifikatzeko.<br>Bildutako informazioa ondo interpretatzeko.<br>Litezkeen portaera-gatazkak eta -asaldurak identifikatu eta konpontzeko. | Testuliburua.<br>Ordenagailuak.<br>Inprimagailua.<br>Ebaluazio-tresnak. |
| J23-E26 Ikasleen praktika autonomoa: haurren sexualitatea garatzen laguntzen duten esku-hartzeak programatzeko | Guztiak | 1,5 h. | | X | Ikasle bakoitzak txosten batean jasoko ditu unitate didaktikoan landutako eduki teoriko garrantzitsuenak. | Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. | Testuliburuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Internet. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| material teorikoari buruzko txosten bat egitea. | | | | | | Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute. | Pendrive-ak/disketeak. Inprimagailua. |
| E27 Berariazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h. | | X | Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka. | Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balioko du. | Azterketa. |

| OHARRAK |
|---|
| • Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.<br>• Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu. |

